

itsasondo^{2.0}

Herriko Aldizkaria (((34. zk))) Azaroa-Urtarrila 2017

Aralarren gau magikoa

Ibilbidea: Gainerako itzulia
Elkarrizketa: Mansour Diop
Ongizatea: Berdintasuna lantzen herrian



Agurra

Udarako oporrak ia-ia ahaztuta eta Itsasondoko jaiak ere pasatuta, jada udazken koloreetan murgildu gara. Egunak laburtu dira, eta horrek barnealdean egiteko ekin-tzak eta jarduerak bilatzera gara-

matza. Etxean sartuta gera ez zaitezten, hainbat ekintza daude antolatuta gorputza eta garuna mugi ditzazuen. Tipi-tapa irteerak, jubilatuentzat gimnasia, pilates, zumba; ziur horietako ekintzaren bat gustuko duzuela. Ez ahaztu eskulan ikastaroa ere martxan dagoela eta gure osasuna nola zaindu azaltzeko hitzaldiak ere abian direla. *Zer jan hura izan* esaerari jarraiki, hilerio Garbiñe Etxanizen eskutik, makrobiotika tailerrak izango ditugu. Eta bizipoz pixka bat ere beharrezkoa denez, kantu afaria, antzerkia, talo jana eta beste hainbat ekintza ere prestatzen dihardugu. Dena prest dago, zu falta zara; animatu, ahalik eta ekintza gehienetan parte hartzera.

Herrian egiteko aukera dagoenaren berri eman ondoren, Itsasondo 2.0 alean irakurtzeko daukazuena aurkeztuko dizuegu. Udalean izandako azken hilabeteetako martxaren berri emango dizuegu, hartutako erabakiak, dirulaguntza eskaerak, proiektuak. Eskolak, haurreskolak eta guraso elkarteak hasi berri duten ikasturterako dituzten egitasmo eta proiektuen berri ematen digute. Hemerrotekan, berriz, Urkia eta Itsasondoko jaietako kronikaz gain, Itsasondoko bizitza sozialeko gertakarien berri izango duzue. Elkarrizketa laburrean, Itsasondora bizitzera etorritako Mansour aurkeztuko dizuegu; ea bere bizipenak interesgarriak gertatzen zaizkizuen. Betiko atalen artean, berriz, informatika, sukaldaritza, liburuak eta ekologiaren inguruko informazioa izango duzue. Zerrendatik kanpo zein atal utzi ditugun ikusi nahi baduzue, onena aldizkariari tartetxo bat eskaintzea izango duzue, eta zuek ohartuko zarete.

Gomendio bat: ahaztu egunak laburtu direla, hotza egiten hasi dela, nagia ematen dizuela eta atera udazkenari ahalik eta zuku gehien, baliatu aukerak, zuen buruak eta gorputzak eskertuko dizuete. ■



Aurkibidea

- 03. **Udaleko berriak**
- 04. **Haurreskola:** haurren eritmo biologikoa.
- 05. **Eskola:** goiko frontoian lasai eta seguro jolastu nahi dugu.
- 06-07. **Gazteria:** gaztelekuak 7 urte.
- 08. **Jubilatuak:** gure ekintzen erreposoa.
- 09. **Tipi-tapa:** ekimenak jarraitzen du.
- 10. **Ongizatea:** berdintasuna lantzen herrian.
- 11. **Elkarrizketa:** Mansour Diop.
- 12-13. **Ibilbidea:** Gainerako itzulua.
- 14. **Informatika:** salbu al daude gure datuak interneten?
- 15. **Aranzadi:** IV. baratzta lehiaketa.
- 16-21. **Hemeroteka**
- 22. **Natura eta errezeta**
- 23. **Liburuaren txokoa / Euskararen atala**
- 24. **Oharrak. Kultur agenda**

Sarrerako bertsoak

Doinua: *Ez nau izutzen negu hurbilak*

Udazkeneko festak igaro eta berriro lehengora, ur horniduren sare berriak badakar bere mejora, goiko frontoia umeentzako jolastoki izango da autoak, berriz, uztea hobe inguru hortatik kanpora.

Jubilatuak pentsio duina eskatuz plaza erdira eta Iratzera joan-etorria egitea komeni da... baratz mutur bat eskuratzeko bideak zabaldu dira, azaburuei prestatu lurra, belar txarrak erretira.

Hegaluzea sartu potean eta pintxoan potea, Aralarreko gau magikoan garoa eta otea, eskulanaren ikastaroa eta odol ematea, proba dezagun sagardoa ta gaztainerreen jatea.



Lehenengo 2. faseetako lanaren planoak



Ur hornidura sareko ur fuga bat.

Itsasondoko ur hornidura sarean lanak

Itsasondoko herria hornitzeko ura Mendibilgo deposituan biltzen da eta bertatik Beko Kalera jaisten da tramu zuzen eta zahar batean. Behin, Beko Kalera iritsita, herrirantz abiatzen da eta Kale Nagusia sare nagusia adarkatu eta herrian hainbat lekutatik baneratzten da. Arazoa da Mendibilgo depositutik Beko Kalera doan hodia zaharra eta egoera kaskarrean dagoela eta gainera gune oso maldatsutik igarotzen dela, horri gehitu behar diogu zuhaitzak ere badaudela, hauen zainak hodientzat arazo sortzaile direlarik.

Ur hornidura sareak orokorrean dituzten arazo nagusienetako bat ur fugak edo galerak dira, ikusten ez direnez atzemateko zailak bai dira; gainera atzemandako ere hauen leku zehatza bilatzea lan zaila gertatzen da.

Itsasondoko ur hornidura sareak zuen galeraren kopurua atzemateko, herrian 5 kontadore sektorial ezarri ziren, (Beko kale 1, industria guneko zubian, Kale Nagusia 14, Udaletxe parean, Erretore etxean eta Zelatxon) hauek emandako informazioaren arabera, hasierako tramu horretan, Mendibildik Beko kalera doanak, egunero 15 m³ inguru galtzen dira eta dagoeneko gune horretan hainbat fuga eta arazo izan dira. Arazoa ez litzateke oso larria izango fuga horiek konpontzeko herri osoari ura moztu behar izango ez balitz, baina tamalez, hasierako ur horniduraren trazatua lineala denez, edozein arazorekin herri osoaren ura moztuta behartuta gaude.

Hori guztia kontuan izanda, ur horniduraren zati hori berritzea erabaki da eta gainera trazatua aldatzeko beharra ere antzeman da. Izan ere, depositutik Kale Nagusira trazatu berria egingo balitz, sare orokorra gehiago adarkatzea lortuko bait genuke eta horrek onurak izango lituzke funtzionamendu aldetik.

Girder enpresak trazatu berriaren proposamen desberdinak aztertzeko, azterlana egin zuen.

Itsasondoko ur hornidura sarearen une honetako egoera aztertzeko eta ditugun aukera ezberdinak azalduz, Ginder ingeniaritza enpresak proiektu bat aurkeztu du. Proiektu hau bost fase edo zatitan banatzen da. Abendu amaierarako I eta II faseak burutu nahi ditugu, depositutik Mendibilera doana hain zuzen ere, hau bai da momentu honetan kezka eta arazo gehien sortarazten dizkiguna. Ondorengo faseak aurrekontu eta diru-laguntzak jaso ahala burutzeko asmoa dago.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Landa eremuko diru-laguntzetara Itsasondoko Ur hornidura sareko I. fasea burutzeko eskaera egin genuen eta 18.928,50€ko laguntza jaso dugu, proiektuaren I. fasearen aurrekontua 35.960€ izanik.

Lehenengo 2. faseetako ur hornidura sarearen berrikuntza lanak burutzeko 3 enpresen proiektu eta aurrekontuak jaso ditugu. Egindako eskaintzak ikusirik 2016 ko Irailaren 26an eginiko Udal batzarrean lan hauek Lurkide enpresari esleitzea erabaki zen. Dagoeneko lanak hasi dira. ■

Haurren erritmo biologikoa

Haur bakoitzak bere erritmo biologikoa du. Sarri gertatzen da hau desorekatua egotea.



Kaixo, Itsasondoko haurreskolatik. Urtero bezala, irailean ikasturte berria hasi dugu. Aurtentzen, lau mutiko ederrekin hasi gara, eta hemen dabilta haurreskolako espazioaz gozatzen. Haurreskolak ematen dizkien txoko guztiak aprobetxatuz eta disfrutatuz. Guretzako satisfakzioa da haurrak pozik ikustea, eta egunero ematen digute oparia: beraien irribarre gozoa; eskerrik asko!

Bestalde, gaurkoan, aldizkarian haurren erritmo biologikoaz hitz egingo dugu. Guri askotan gertatu zaigu haurra desoroso, ipurterre edo desorekatua sentitzea eta ezin jakin zergatia. Konturatu gara hau guztia sarri gertatzen bada, haurren erritmo biologikoa desorekatua dagoelako dela; ondorioz, haurrak goian aipaturiko seinaleak ematen hasten dira. Erritmo biologikoak epe zehatz batean erregulariki ematen diren prozesu fisiologikoak dira, esate baterako, loa, elikadura eta garbiketa. Azken hau ez da erritmo biologikoa, baina lotura zuzena du.

Lehenik eta behin, loarekin hasiko gara. Loa derigor behar dugu, eta haur batzuek lotarako uea finkatuta dute, baina beste batzuek ez; horrek disarmonia sor lekieke. Lo ondo eta nahi adina ez egiteak hutsegite batzuk sor ditzake garapenean; gainera, egunerokotasunean egiten diren ekintzetan ere oztopoak sor daitezke premia hori behar bezela asezten ez badute. Askotan, ipurterre eta deseroso daude arrazoi horrengatik. Beraz, izugarriko garrantzia edukiko du lotarako ueak errespetatzeak. Deskantsurako momentu horretan, haurrek egindako ekintzak prozesatzen dituzte, ikaskuntza prozesuari bide emanez. Bestetik, energiak errekuperatzerako garaia da, eta nerbio sistema orekatzeko uea.

Haur bakoitzak bere erritmoa du lo egiteko garaian: batzuek gehiago behar dute eta beste batzuek gutxiago. Batzuek kontaktua behar dute, eta beste batzuek lasai hartzen dute lo bakarrik. Garrantzitsua izango da heldua lo egiteko senaleei adi egotea eta egunero haurren lotarako garaia iristen denean,

aurretik ekintza bera errepikatuz haurra jabetzea lotarako garaia dela.

Hori guztia etxeko ekintza bat dela badirudi ere, haurreskolan ere lo egiteko momentuak daude, erritmo biologikoak errespetatzeko. Horretarako, txoko aproposak ditugu haurrek lo lasai har dezaten. Gela honek gainontzeko gelak baino argitasun gutxiago izango du, eta giro gozo eta lasaia edukiko du. Horrela lortuko dugu haurren loa orekatua izatea eta haurra armonian egotea.

Ondoren, elikadurarekin jarraituko dugu. Hau ere erritmo biologiko bat da. Elikadura on bat jarraitzea ezinbestekoa da haur baten garapena ondo eramateko, esploratzeko, mugitzeko eta eskema kognitibo berriak eraikitzeko, energia lortzen baita.

Normalean, haurrek gosea asetzen dutenean ez dute gehiago jaten. Hori bai, haur bakoitzari bere espazioa eta denbora eman behar zaio, jateko garaia plazer bat izan dadin, eta ez sufrimendu bat. Garrantzitsua izango da haurrak plazerra sentitzea, alimentuarekin harreman egokia edukitzeko.

Bukatzeko, garbiketa. Ez da erritmo biologiko bat, loa edo elikagaia izan daitezkeen bezala; baina, lotura zuzenak ditu haurrengan. Bestalde, garbiketaren inguruan hainbat fase desberdin daitezke: fase pasiboa, lankidetzeta fasea eta fase aktiboa.

Garaia gozoa, lasaia izan behar dute. Hasieran, eskuak eta aurpegia garbitzen ikasten hasten dira helduen laguntzaz: nola eta noiz garbitu, zikin egotetik garbi egotera igarotzea zein atsegina den erakutsi. Hori guztia kontuan hartuta, beste erritmoak bezala, behar-beharrezkoa da, eta bere espazioa eta denbora deditakatu dizkiogu. Gogoan izan kontu serioa dela, zeren adin tarte honetan haurrak ezin dira euren garbiketaz arduratu, eta laguntza behar dute. Heldua da higieen egokiarekin daudela ziurtatu behar duena, eta denok dakigu higieen osasunarekin lotua dagoela. Besterik gabe, agur bero bat haurreskolatik; eta, gurekin harremanetan jarri nahi baduzue, hemen gaude. ■

Goiko frontoian lasai eta seguro jolastu nahi dugu

Honetarako bertako trafikoa gutxitzea, kotxeek frontoian ez aparkatzea eta abiadura moteltzea eskatzen dugu.



Beheko frontoia eraiki zen arte, gure ustez goiko frontoian erabilera egokia ematen zitzaien. Pentsatzen dugu, garai hartan gure adineko haurrak goiko frontoian askatasun osoz ibiltzen zirela; alde batetik, trafikoa murriztagoa izango zen, eta bestetik, kotxeak ez zituzten bertan aparkatzen.

Gaur egun, berriz, goiko frontoia aparkaleku bezala erabiltzen da. Guk, eskolako haurrok, erabilpen ona eman nahi diogu frontoian.

Duela hiru urte, eskolako patioa oso txikia zela eta, irakasleek atea ireki eta herriko goiko aldean jolasteko aukera eman ziguten. Ordutik, gauza gehiagotan jolasteko aukera dugu, askatasun handiagoa sentitzen dugu, eta hori dela eta, liskarrak gutxitu egin dira. Gainera, gure presentziak herriko goialdea, hainbestetan ahaztua izan dugun herriko zati polit hau, zoriontasunez eta bizitasunez betetzen duela pentsatzen dugu. Orain arte ezagutzen ez genituen txokoak topatu ditugu, eta jolas orduan hobeto pasatzen dugu.

Hala ere, baditugu arazo batzuk gure jolas ordua zapuzten dutenak: trafikoa dabil, eta autoak frontoian aparkatzen jarraitzen dute, nahiz eta udaletxeak hori debekatzen duen seinalea jarrita izan.

Ikasturte hasieratik, guk, 3. zikloko haurrok, datuak jasotzen dihardugu patio orduan: zenbateko trafikoa dabilen behatuz, aparkatzen duten kotxeen kopurua erregistratuz eta errepidea pasatzerakoan gure jarrera aztertuz.

Ondorioz, hitzordua eskatuko diogu alkateari, gai honetaz hitz egiteko gurekin elkartzeko. Gure argudioak zeintzuk diren azaldu nahi diogu, eta ondorioetara eta egin beharretara elkarrekin iritsi nahi dugu.■

Sinatzaileak:

Natale, Izaro, Nahiare, Niko, Sua, Uxue, Julen, Garazi, Geovana, Unax, Aimar, Ainhoa eta Leire.



Gaztelekuak 7 urte

Badira 7 urte, Karreape gaztelekuak, atek ireki zituenetik. Urte hauetan, Itsasondoko neska mutiko askok parte hartu dute egin diren ekintza desberdinetan. Aldizkariaren ale honetan, argazkien kutxan sartu gara eta handik eta hemendik saltsan ibili ondoren, aukeratu ditugun argazkiak erakustea pentsatu dugu. Ia gustatzen zaizkizuen!!!





Gazteriko agenda

Urriak 5: Gaztelekuko aurkezpena.

Urriak 14: Gaztelekua eta gu! saioak.

Urriak 21: Gaztelekua eta gu! saioak.

Urriak 21: Ipuin kontaketa saioa, Ines Bengoarekin.

Azaroak 4: Olaberriko karretara irteera.

Azaroak 25: Ipuin kontaketa saioa eskolan, Maite Frankorekin.

Abenduak 16: Txuri-Urdinera irteera.

Gure ekintzen errepasoa



Jubilatuaren eguna

Irailaren 25ean jubilatuaren eguna ospatu genuen Itsasondon. Goizean, meza izan genuen, eta ondoren, hamaiketakoak jatera jaitsi ginen Bizi Nahi elkartera. Bazkaria berriz, urtero bezala Nautikon izan genuen. Bazkalostean, zinegotziek lagunduta, oroigarriak banatu genituen. Emakumezkoen ordularia Maritxu Mujikari eman genion eta gizonezkoena Joxe Arrospeideri. Ondorengo gazta eta ardoaren zozketak saltsa pixka bat jarri zuten eta azkenean, saritua atera zen, Antonio Monge. Giro ederrean pasa genuen eguna, beraz. Aurten 54 lagun elkartu gara; ea hurrengo urterako jende gehiago animatzen garen!

Kontzentrazioa

Urriaren 1an, adineko pertsonen nazioarteko eguna zela baliatuz, urriak 3an herriko hainbat jubilatu eta ez jubilatu kalerara irten ginen, jubilatuaren eskubideen defentsan. 19:00etan plazan elkartu eta besteak beste honako adierazpen hauek egin genituen: "Triste eta kezkatuta sentitzen gara politikariek hartu dituzten azken erabakien aurrean, gutaz ahaztu dira, jarraian ikus dezakegun moduan:

- A) Pentsioen erosteko ahalmena murriztu da, eta kutxa bakarra hutsik geratzen ari da.
- B) Pentsiorik baxuenak jaso arren, familien egoera kaotikoa nolabait arintzen duen euskarri bakarra izaten gara.
- C) Gobernuak Gizarte Segurantzako pentsio-kutxako gure fondoak erabiltzen ditu norbere onurarako, horiek arriskuan jarritz.
- D) Gaur egungo alarguntza-pentsioak horrenbeste aldiz agindu duten % 70era igo dadila eskatu nahi dugu, gutxienez.

Adierazitako guztiagatik, gure ordezkari politikoei, kolektibo honekiko jarrera positiboa manten dezatela eskatu nahi diegu, eta ahal duten heinean, zahartzea denok iritsi nahi dugun bizitzako beste fase baten gisa har dezatela, ahalik eta baldintza onenetan." Goierriko beste hainbat herritan ere elkarretaratzeak egin zituzten.



Iratxera txangoa

Urriaren 11n, goizeko 09:00etan, autobusa hartu eta Iratxera bidean abiatu ginen. Lehendabizi, hamaiketako ederra jan genuen, eta ondoren, inguruan dagoen fabrika batera joan ginen. Bertan, olio eta ardoa ekoizten dituzte. Dastatzeko aukera ere izan genuen, prestatu ziguten mokadutxoarekin. Bisita amaituta, Lizarrara joan ginen, eta paseo bat emanez, herria ikusi genuen. Bazkaltzeko garaia ailegatu zela eta, berriro Iratxera itzuli eta bertako jatetxe batean bazkari ederra zerbitzatu ziguten. Amaitutakoan, bingoan jokatzeko aukera izan genuen, eta bukatzeko, karta saioa edota bazkaria jaisteko paseoak izan genituen. Egun osoan zehar alde batera eta bestera galditu gabe ibili eta gero, 18:30ak inguruan autobusa hartu eta etxeranzko bidetara ekin genion. Egun ederra izan zen, benetan. ■

Tipi Tapa ekimenak jarraitzen du

Oinez goazen bitartean, aldemenekoarekin hitz eginez minak ahazten zaizkigu.



Kaixo, lagun!

Dakizuen bezala, Itsasondoko Udalak eta Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak Tipi-Tapa egitasmoa martxan jarri zuten iaz. Proiektu honen helburua adineko jendeak kirola egitea eta hartu-emanak edukitzea da. Horretarako, ibilaldiak antolatzen dira asteartero, arratsaldeko 17:00etan herriko plazatik irtenda.

Egitasmoan parte hartzen duten guztiak iritzi berekoak dira: «Tipi-Tapa egitasmoan parte hartzen dugunok, paisaiak gozatzeaz gain, lagunak ere egiten ditugu. Oinez goazen bitartean, aldemenekoarekin hitz eginez minak ahazten zaizkigu, eta gainera, ekimen hau primerakoa da udazkenak arropaz dezakeen gogogabeziari aurre egiteko. Beraz, jantzi sarra eroso eta denak ibiltzera!» animatzen gaituzte.

Tipi-Tapa egitasmoa elkarlanaren fruitua da. Izan ere, egitasmo honek Eusko Jaurlaritzaren, udalaren eta Bizi Nahi jubilatuek elkartearen babesa du.

Ibilaldiak edozein adinetarako dira aproposak. Batzuek bidegorri osoa egiten dute (Ordizia edo Legorretako bidegorritzeraino), eta beste batzuk nekatzen diren tokian eseri egiten dira eta eserita itxaroten diete bueltan datozenei, edo buelta txikiagoa ematen dute.

Iaz 15 parte-hartzaile

Aurreko ikasturteko irteeretan 15 lagunek parte hartu zuten egitasmo honetan. Astero 10-15 lagun irten ziren bidegorrira. Ea aurten lagun kopurua handitu edo mantentzeko gai garen.

Soinketa

Asteartero, ibilaldia baino lehen eta irakasle batek lagunduta, udaleletxeko lehen solairuan, 16:00etatik 17:00etara soinketa saioa egiten da, gorputzeko giharrak berotu eta ibiltzeko prest jartzeko.

Ibilaldian parte hartzeko ez dago izena eman beharrik, baina soinketan parte hartu nahi izanez gero, udaletxean eman behar da izena, eta 10€ko kuota ordaindu beharko da hiru hilabeteko soinketa saioengatik (sei hilabeteko ikastaroa nahi izanez gero, 20€).



Memoria tailerra eta bingoa

Dena oinak mugitzea ez denez, eta tarteka burua ere landu behar delako, hileko azken asteartean (urriak 25, azaroak 29 eta abenduak 20) MEMORIA TAILERRAK antolatzen dituzte Bizi Nahi elkarteak, 18:00etan hasita. Hemen ere, lagunartean egon eta bata besteari lagunduz, garuna aktibo eta sasoiari mantentzeko ariketa batzuk egitea da helburua.

Eta azkenik, azkeneko urteetako ohiturari jarraituz, hileko azken ostegunetan (urriak 27, azaroak 24 eta abenduak 22) BINGOarekin jarraitzeko asmoa ere azaldu dute Bizi Nahi jubilatuek elkartekoek.

Ikusten duzue, lagunok, Itsasondoko adineko jendeak ez du aspertzeko asmorik. ■



Berdintasuna lantzen herrian

Festetan bokadilo jana

Itsasondoko Udaleko Ongizate batzordearen izenean eskerak eman nahi dizkizuegu Itsasondoko herritarrei, festetako bokata janean parte hartzeagatik. Aurten, 416 euro jaso dira egitasmo honekin, eta guztira, gutxi gorabehera 149 bokata saldu direla kalkulatu da. Horietatik 121 helduentzat, eta 28 haurrentzat. Bertan jasotakoa Ongizate batzordeak urtean zehar herrirako eta herritarrentzat onuragarri deritzon ekintzetan gastatuko du, betiere Gizarte Ongizate ikuspuntu batetik.

Mila Esker, berriz ere!

Berdintasuna ikastetxean

Ongizate batzordeak antolatuta, udalaren diru laguntzarekin eta Emagin elkarteak bideratuta, berdintasuna lantzeko tailerrak egin dira Itsasondoko ikastetxean 7 eta 12 urte bitarteko haurrekin. Saioetan helburu hauek landu dituzte:

- Identitatearen eraikuntza soziala eta sexismoa. Maskulinitate eta feminitate ereduak.
- Gure identitatea nola sortzen dugun, bestearena nola ulertzen dugun eta horren baitan gure artean zer harreman sortzen ditugun.
- Harreman horietan egon daitezkeen errespetu faltak identifikatu eta guztion artean ekidin, erantzun edo kudeatzen ikastea.

Hori lantzeko, taldeetan banatu dira haurrak, eta ordu eta erdiko saioak izan dira. Taldeak honela banatu dituzte:

1. 7 eta 9 urte bitarteko 12 haur.
2. 7 eta 9 urte bitarteko 11 haur.
3. 10 eta 12 urte bitarteko 15 haur.

Ongizate batzordea eskolako eta Emagin taldeko balarazioen zain dago, baina haurrei eskaini zaien saioa herriko guraso eta herritarrei oro har eskaintzeko aukera aztertuko du; izan ere, arlo honetan lan asko baitago oraindik egiteko. Saio hau azaroaren 22an egingo dugu udaletxean, arratsaldeko 18:00etan hasita. Zaintza zerbitzua ere egon dela gogorarazi nahi dizuegu. Bitartean, artikulua honekin, haurrek landu dituzten helburuak irakurri eta horiei buruzko hausnarketa txiki bat egitera gonbidatzen zaituztegu. ■





Mansour Diop

Senegalen (Afrika) jaio zen, 1983an. Han, bere familiarekin bizi zen. Bere aitak lau emazte ditu, eta guztira familia handia osatzen dute, 24 neba-arreba guztira. Bere amaren aldetik zazpi neba eta arreba bat ziren (ama eta arreba hilik daude). Urretxun, Abdolai bere anaietako bat, Fatou koinata eta Mansour iloba bizi dira. Frantzia berriz, Issa, beste anaia bat bizi da.

2006an, Senegaldik hona etortzeko lehen saiakera egin zuen, baina itsasontzia puskatu eta urperatu egin zen. Aurten, kilometroz eta itxaropenez beteriko bidaiaren batean, berriro saiatu da: lehenik, Senegaldik Malira, handik Burkina, Burkinatik Libiara eta Libiatik beste 400 pertsonekin batera bi itsasontzitan, zeruko izarrak eta Alak gidatuta, Italiara iritsi zen. Han, Pape izeneko lagun baten etxean egon zen, Santanderrera gerturatu zen arte. Santandertik Tolosara etortzea erabaki zuen, Tolosatik Anoetara, Anoetatik Ordiziara, Ordiziatik Urretxura, eta irailetik hona Itsasondon bizi da.

Astelehenetik ostegunera Ordiziako HHLra (Helduen Hezkuntza Ikastetxera, EPARa) joaten da gaztelania ikastera. Astearte eta ostegunetan Ordiziako Errugby taldearekin entrenatzen du, txikitatik gustatu izan zaion kirola baita. Ostiralero, Beasaingo mezkitera joaten da Senegalgo kideekin elkartu eta bazkaltzera. Hamasbotean behin, igandetan, inguruan bizi diren 40-50 senegaldar elkartzeko dira elkar lagundu eta bizipenak partekatzen. Diru-bilketa ere egiten dute, behar gehien duenari emateko.

Itsasondon, azken auzolanean (2016ko urriaren 12a) ikusi genuen, Beitiko parkeko eserlekuak konpontzen, eta arotza denez, bere saltsan, txukun eta jator ikusi genuen.

Noiz etorri zinen Itsasondora?

2016ko irailean.

Zergatik erabaki zenuen zure herrialdetik joatea?

Lehen lana neukan, eta dirua irabazten nuen; baina, gero lana gutxitu eta langabezia geratu nintzen.

Zer gogoratzen duzu etorri zinen lehen egunari buruz?

Lasaitasuna.

Utzi al dituzu senideak bizi zinen herrialdean?

Bai, hiru anaia.

Zer lanbide zenuen zure herrialdean?

Arotza nintzen. Lau urterekin hasi nintzen lanean. Tailer desberdinetan egin dut lan, baita hotel bateko altzairu guztiak egiten ere: eskailerak... denetik.

Zer lanbide duzu hemen?

Festetan, generoa saltzen dut, bestela langabezia nago. Beste lanbide bat izatea gustatuko litzaidake.

Zer duzu faltan zure herrialdetik?

Ama.

Zer ez zaizu gustatzen hemen?

Eta zer duzu gustuko?

Dena dut gustuko, niretzako dena ondo dago.

Zer zaletasun dituzu?

Hemen: eskolan hitz egiten eta idazten ikastea eta errugbian jokatzeko.

Senegalen: gimnasioa eta Beren egitea, judoaren antzeko kirola da.

Janari bat.

Hemen: dena gustatzen zait; bat esateagatik, esnea. Senegalen: dena gustatzen zait.

Itsasondoko/Goierriko txoko bat.

Itsasondon daukadan baratza.

Amets bat?

Igeri egitea. Senegalen, lanera joateko lau kilometro egiten nituen igerian egunero, oinez joateko 6.5 km egin behar bainituen; buelta korrikan egiten nuen.

Jaso duzun oparirik bereziarena?

Alak eman didan bakea lasai bizitzeko.

Zeri diozu beldurra? Zergatik?

Ez diot beldurrik ezeri.

Zerk sortzen dizu irribarrea?

Gauza asko daude irribarrea eragiten didatenak, horien artean oinetan eragindako kilimak.

Itsasondon biziko ez bazina?

Urretxun, nire familiarekin;

Abdolai, Fatu eta Mansourrekin. ■



31. Ibilbidea

Gainerako itzulia (Olaberria)


Udaletxeko plazan abiatzen den zirkuitu honetan, Parderreka ubidea hornitzen duten erretenetako batetik jaitsiko gara. Aizpea baserriaren albotik pasatuko gara eta autoeskolako zona baxura heldu. Puntu honetan, eskola zaharren ondotik, kartingaraino joango gara, nahi izanez gero, edo bestela, eskolak inguratu eta errepede nagusira bueltatuko gara,

Olaberriko norantza hartuz. Mahastiak bukatzen direnean, eskubira harturko dugu, Bengoetxea Ahundi baserriantz, eta ondoren Iriarte, Balda, Matsalde eta Azarola baserri ondotik igaroko gara.

Azkenik, baserri horietatik hirigunerantz abiatuko gara. ■

Iraupena: 90'

Ibilbidea:
Olaberriko plaza - Eskola zaharrak: 30'
Eskola zaharrak - Olaberriko plaza: 60'





01

Parkea

02

Aizpea baserria

03

Eskola zaharrak



04

Karting zirkuitoa

05

Bengoetxe baserria

06

Iriarte baserria



07

Azazola baserria

09

Miraballes baserria

10

Enparantza

08

Olaberria



Salbu al daude gure datuak interneten?

Enpresa askorentzako, Interneten mugitzen diren datu pribatu asko lortzeak sekulako onurak eta abantailak dakartza.

Badakigu, gaur egun, gure eguneroko gertakariak kontatzen ditugula sare sozialetan. Badirudi, derrigorrezkoa dela egunero gertatzen zaigun guztia lau haizetara esatea, jendeak jakin dezan. Eta hor, Interneten argitaratzea ere sartzen da.

Hainbeste informazio mugitzen da Interneten ze, gu erregistratzen garen toki guztietan eta guk maizen egiten ditugun bilaketetan sortu dezakegu gure izaeraren perfil zehatz bat. Bada, justu hori da Interneten mugitzen diren enpresak bilatzen ari direna.

Zuetako askok ez du inoiz galdetu zergatik Facebook-en zuen gустuko publikitatea ateratzen den? Arrazoi asko daude, baina erabilgarriena hauxe izaten da: enpresa batzuek (online dendak nagusiki), jakinda bisita asko jaso dituztela zuen ordenagailuetatik, segimendu bat egiten dute ea Facebook daukazun jakiteko, eta publikitatea zure horman publikatzeko.

Enpresa askok beraien erremin-tak erabiltzen dituzte jendearen informazioa lortzeko. Bat jadanik esan dugu: jarraipena egiten ditzute, gero zure sare sozialetan publikitatea sartzeko.



Beste modu bat da, zuk erregistratutako web orrietan (adibidez, Yahoo-ko korreo elektronikoa) zuk emandako informazioa beste enpresei saltzea edota erakustea.

Ez zaizue inoiz gertatu, zuen korreo elektronikora sartu eta bat-batean Orange-ko publikitatea edukitzea korreo moduan? Eta esaten duzu: Ze arraroa, nik ez dut inoiz Orange-kin hitz egin. Kasu hauetan, normalena izaten da, zu erregistratuta zauden web orriren batek zure datuak beste bati saldu edo elkarbanatzea.

Web askok erregistratzean esaten dute, zure datuak elkar banatuak izan daitezkeela. Hala bada, ez dira guztiz ilegalak kasu horiek. Baina, kontuz ibili beharra dago, ez badugu gure korreoa propagandaz beterik ikusi nahi.

Badaude enpresa asko informazio hori edukitzea ezinbesteko jotzen dutenak. Imajinatu, enpresa

batek 10.000€ inbertitzen ditu milioi bat lagun informazioa edukitzeko, bere produktua saltzeko. Produktua 100 eurotan saltzen badu, eta lortzen badu milioi lagun horietatik laurden bati saltzea, enpresak sekulako irabaziak lortzen ditu.

Horregatik, askotan esaten da, arretarekin ibili behar dugula non sartzen dugun gure informazioa. Askotan, asmo komertzialekin erabiltzen baitira.

Gainera, gaur egungo globalizazioarekin, eta ikusita gero eta online erosketari gehiago egiten direla, guregandik ahal den informazio gehiena edukitzea urrezko materiala da enpresentzako.

Horrekin ez dut esan nahi gure informazioa ez dugunik jarri behar inolako web orritan. Ez dut inor beldurtu nahi; bakarrik esan nahi dut kontuz ibiltzeko eta buru hotzarekin jokatzea komeni dela. ■

Zorionak, baratzezain!



Hiru saridunak alkatearen eskutik saria jasotzen.

Zorionak eskuekin lurra lantzen duenari, barazkiak mimoz zaintzen dituenari, lur maldatsuari aurre egiten dionari, euri-jasak, lehortea eta hotza gaingitzen dituenari, paisaia hobetzen duenari, osasuntsu jaten duenari, lurra bizirik mantentzen duenari, ohitura zaharrei eusten dionari... lehenik eta behin, ZORIONAK GUZTIEI!

Izan ere, ez da txikia Itsasondoko herri inguruan dagoen baratze kopurua, eta ondorioz, itsasondotarrak egiten duten lana. Aurten, 41 baratze zenbatu dira Itsasondoko Herri-inguruko baratzen IV. lehiaketan. Aldez aurreko iragarpenik eman gabe, nekazaritza ekologikoan aditua den taldeak herri-inguruko baratzak bisitatu eta nekazaritza ekologikoaren irizpideen arabera baloratu ditu.

Nekazaritza ekologikoa ingurumena zein gizabana-koa gehien errespetatzen dituen nekazaritza eredu da. Honen bitartez, kutsadura eragiten duten ongarri kimikoak edo pestizidak baztertu egiten dira, baita genetikoki eraldaturiko organismoak ere, eta lekuan lekuko zikloak errespetatzen dira. Eredu honetan, lurra bizirik dagoela ulertzen dugu, eta irizpide hauek jarraituz, emankortasuna handitzea lortzen dugu, aldi berean gure osasuna zein ingurunearena hobetuz. Azken finean, gure bizi kalitatea zein ingurukoena hobetzen dugu.

Beraz, hauek dira baratze lehiaketan positiboki baloratutako ezaugarrietako batzuk:

- Konposta egitea.
- Hazitegia izatea.
- Landare-hesiak izatea.
- Loreak izatea.
- Landare asoziazio egokiak izatea.
- Barazki espezie ezberdinak izatea.
- Euri-ura aprobetxatzea.

Eta negatiboki baloratutakoak:

- Gehiegizko plastikoa erabiltzea.
- Kanpoko espezieak izatea.
- Produktu fitosanitarioak erabiltzea.

Azkenik, baratzezaintzaren ateetan daudenak baratzea jartzera animatu nahi ditugu. Denon artean gure lurralari eta kulturari eutsiko diogu!

Lehiaketaren emaitzak

1. SARIA: Miguel Angel Peris

(Herriko jatetxe batean bi lagunentzako otordua + 100 €ko txekoa Goierriko Nekazaritza Kooperatiban gastatzeko)

2. SARIA: Joxe Jauregi

(Herriko jatetxe batean bi lagunentzako otordua).

3. SARIA: Mikel Etxebarria

(50 €ko txekoa Lurdes janari dendan gastatzeko). ■



Itsasondoko jaiak

Irailaren 16an, 17an eta 18an herriko jaiak ospatu genituen. Aurten, beroketa modura, bingo herrikoia izan genuen, ostegunean, jubilatuen elkartean. Ostiralean, haurrak ederki ibili ziren urte askoan egin den zinta karreran, eta baita ginkanan ere. Meriendatu ostean, udaletxeko balkoira gerturatu ginen, eta Mintzalagun taldeak prestatutako pregoi orijinalaz gozatu genuen; bejoindeizuela! Ondoren, urteroko ohiturari jarraiki, 160 bat lagun elkartu ginen Erramun eta bere taldeak prestatutako afari goxoaren bueltan. Gaua amaitzeko, DJ Jaialairekin kantu saioa izan genuen, eta baita dantza pixka bat egiteko aukera ere.

Larunbatean, eguraldiak atsedunik eman ez bazigun ere, herritar ugari elkartu ginen plazan, eta paela ederrak prestatu genituen. Ondoren, zur eta lur utzi gintuen Tor Magoak bere trukoekin. Joxe Mendizabalen musikaz dantzan alai ari ginela, playbakerako ordua iritsi zen; a zer artistak ditugun herrian... Datorren urtean zuen dantzak ikusteko desiatzen gaude jada! Mozorro festa ere izan genuen; euskal kirolak gaiaren inguruan mozorro ugari ikusi genituen plazan, eta mozorrotuta ez zegoenak ere horretarako aukera izan zuen photocall-ari esker. De-taile oso polita izan genuen euskal herriko hainbat

kirolariren eskutik, beraiek sinatutako oroigarri pila oparitu baitzizkiguten; beraz, gure eskerrik beroenak eman nahi dizkizuegu, zuetako bakoitzari, guretzako prestatutako oroigarri guzti horientzat. Gero, Ongizate taldeak prestatutako bokatekin indarrak hartu eta dantza ugari egin genuen Elektrotxufiak jotako doinuekin.

Igandea iritsi zen, baina puzgarrietan ez zen nekerik nabaritzen, goizetik eguerdira arte saltoka aritu baitziren haur nahiz helduak, noizbehinka hamaiketako egitera joan eta atsedenaldira hartuz. Kantu bazkaria ere izan genuen, ezarriak urratu xamar bagenituen ere. Abesteari utzi gabe, giro polita izan genuen. Bazkal ondoren, herriko gazteen pilota partiduez gozatzeko aukera izan genuen; a zer nibela gazteek! Amaitutakoan, erraldoiak eta buruhandiak etorri ziren, eta momentu batean atertu zuenez, herriko trikitilariekin batera kalera irten ziren. Azkenik, jaiak amaitzeko, Mintzalagun taldekoak berriro ere balkoira irten eta ijittuaren igoera egin zuten. Hala, hurrengo urterako pregoiaren erreleboa ongizate taldeari pasa zioten. Beraz, badakizue, hasi buruari eragiten! Jaiak giro onean amaitzeko, Arbelaitz elkarteok sagardo dastaketa ederra eskaini ziguten. ■



Oztopo eta bazterketarik gabeko kirolak

Egia esan, herriko jaietan, mozorrotzeko garaian, gai baten inguruan izateak kezkak sortu ditzake. Baina, egia da baita ere, euskal kirolen inguruan giro alai eta polita sortu zela.

Idatzi txiki honen bitartez, Euskal Herriko kirolarioi eskerrak eman nahi dizkizuegu, zuen opariaren bitartez, parte hartzaileok eta ltsasondoko herritar guztiok, zuen kidesuna eta gozotasuna jaso baikenuen. Zuen bitartez, nolabait aldarrikatu nahi izan genuen, batera edo bestera, oihartzun gutxiegi duzuen kirol eta kirolariok entzunagoak izatea merezi duzuela. Jakinaren gainean gaude, edozein arlotan, emakumeon eta elbarritasun bat dugunon parte hartzeak ez duela jasotzen beste edozeinek jasotzen duen bultzada, ez mediatikoa ezta soziala ere, eta herri kirolak ere bazterketa jasaten duela.

Eskerrik beroenak Elena Calvillo mendi lasterketariari, Richar Oribe Konporta K.E.ko igerilariari, Iker Irribarria pilotariari, Iñaki Azurmendi aizkolariari,



Euskal fotokola



Igor Esnaola segalariari, Ama Guadalupea Hondarribiko arraunlariei, Ordiziako Azatxo saskibaloitaldeari eta Ordiziko Rugby taldeari.

Ederki landua eta polita bezain dibertigarria izan genuen Euskal Fotokola. Erabilpen ederra eman zitzaion, gau eta egunez.

Lerrotxo hauen bitartez, datorren urteko jaietan mozorrotzera animatzen zaituztegu. ■

Ura kanpoan eta barruan

Kalekumeak garenok giro euritsuari aurre egiteko etxe barruan geratzeko joera dugu. Aurrekoan, hala ere, asko ausartu ziren Aralarko bidean. Bustiak esan ohi den besteko kalterik ez omen duela, eta aurrera!

Zorionez, txabolaz gain, aterpe eder batek ere babestu gintuen. Gure gainean ari zuen euri berberak eraikitakoa. Milaka eta milaka urteko patxadaz aritu den euri-urak Sastarriko karaitza zulatu, desegin eta barrunbe ikusgarriak eratu ditu. Erabateko ilunpean hasi genuen gau majikoa. Eta, zer aurkituko? Barrunbeko ezkutuan ere, kanpoan bustitzen gintuen euriak sortutako putzu gardena. Eta, garai batean ur hau ongi aprobeztatzen zutela ere jakin genuen. ■



Auzolana

Urriaren 12an jai hartu behar izan genuenez, hobekuntza batzuei aurre egitea pentsatu genuen. Oraingo honetan, zenbait ibilbide eta gunetan dauden eserlekuak puskatuta edo egoera txarrean zaudela ikusirik, horiek konpontzea erabaki zen, bai haurrek eskolan eta bai herritar batzuek egindako eskariari erantzuna emateko asmoz.

Oso gutxi elkartu baginen ere, giro jator eta alaian ekin genion auzolanari. Aldez aurretik lan hau burutzeko behar zen materiala bildu genuen, eta asteazkenean, egurrez egur, iltzez iltze eta pausoz pauso ekin genion egin beharreko lanari. Amaieran, elkarrekin lasai eseri eta hamaiketakoa egin genuen.

Argi dago Itsasodan hainbat aldaketa eta hobekuntza behar ditugula; behar horiek aipatzea funtsezkoa da, baina dudarik gabe, beharrezkoa bezain garrantzitsua da auzolana egitea; eta hori guztion eskuetan dago.

Eskolan, parke berria egitea ari dira lantzen, eta egia esan, goraiatzekoa da horren inguruan irakasle eta ikasleak hausnarketa, ikerketa, proposamen, maketa eta abarren bidez egiten ari diren lan sakon guztia. Garbi utzi nahi dugu, parke berria egiteak auzolanerako ere denon inplikazioa eskatzen duela. Lehen zegoen parkea kendu genuenean bezalaxe, oraindik data finkorik ez badago ere, auzolanerako deialdia zabalduko da.

Eskerrik asko herriak behar edota nahi dituen aldaketak lantzera gerturatzen zareten guztioi. ■



Jaietako argazkien bideo emanaldia

Tristura nabaritzen da herriko jaiak amaitzen direnean; baina, aldi berean, gogotsu itxaroten dugu egun guzti hauetan zehar bildutako argazkien emanaldia ikusteko eguna. Hiru egun besterik ez diren arren, argazki ugari biltzen dira, eta beraz, jaiak amaitutakoan, horiek guztiak batu eta bideo zoragarria prestatzen digu Enmak. Aurten ere ez da gutxiago izan, eta ederki pasa dugu momentu horiek gogorarazten; argazkia ikustea besterik ez dago! ■



Hegaluze ikastaroa

Beste askoren artean, hegaluzea da itsasoak eskaintzen digun jaki goxoetako bat. Udan hasi eta urria bitartean izaten da era desberdinetara prestatuta jateko aukera. Ondoren ere, oliotan potetan sartu eta urte osoan zehar jan daiteke. Horixe da urriaren 13an Jubilatuen Elkartearen elkartutakoek ikasi zutena. Bixenta eta Xabi ama-emeak izan ziren irakasle, eta ederki erakutsi zuten nola egin lan hau. Eskerrik asko, bioi! Orain ikasleek praktikan jarri behar ikasitakoak! ■



Bixenta eta Xabier hegaluzea prestatzen.

Odol emaleak

Irailaren 29an odola emateko aukera izan genuen herrian bertan. Jendea bertaratu bazen ere, inoiz ez da nahikoa, eta are gutxiago orain. Gipuzkoako Odol Emaleek diotenez, otsailean %25eko beherakada izan zuen odol emateak. Horrek beherakada handia suposatu zuen erreserbetan, eta beraz, komunikabideetan kanpaina bat egiteko beharra ikusi dute. Denok dugu erantzukizuna gai honetan; beraz, unibertitatean, lantegietan, herrian... animatu odola ematera. Gogoratu nahi dizuegu, herrian odola eman ondoren, jubilatuen elkartearen ogitarteko gozo-gozoak jateko aukera dugula. ■



Pintxo-pote

Jaiak amaitu dira, baina horrek badu alde ona ere. Denok dakigu jada, jaiak amaitutakoan, lau ostiral jarraitzen pintxo potea izaten dugula herrian, eta ez dugu hitzordu honetara huts egiten. Aurten ere hala izan da, eta jende asko gerturatu da Kaxintanera, Nautikora, Jubilatuen elkartera eta Arbelaitz elkarteak plazan jarritako txosnara. ■



Hip Hip Urri! 2016

Hip Hip Urri! ekimena egin genuen urriaren 15ean (larunbata). Egun eguzkitsuak asko lagundu zigun une eta ibilalditxo polit bat izaten.

Legorretakoak iritsi bezain pronto eta Itsasondoko plazan argazkia atera ondoren, mendiruntz jo genuen. Ttipi-ttapa lasaian Altzagateruntz abiatu ginen, eta bertara iristeko Sarasola auzoko 400-500 eskilara igo genituen. Baliarraingo San Juan iturrian geldituen txoa egin genuen, hamaiketako ederra egiteko. Energia berreskuratu ondoren, Urdaneta baserritik igaro eta Legorretara iritsi ginen. Herriko plazan prest genituen mahaiak eta musika, elkarrekin bazkaltzeko. Ostean, haurrak euren kabuz jolasten hasi ziren; hori bai polita! Jarraian, begirale batzuk etorri ziren, eta herrian zehar hainbat jolas egin zituzten. Jolas horietako batean, gurasook ere parte hartu genuen.

Egia esan, lehen aipatu dugun bezalaxe, eguzkiak asko lagundu zuen egun polit bat bizitzeko garaian, eta esan beharra daukagu, ilargi beteak ere lagundu zuela eguna luzatzen; eta Hip Hip Urri! ekimenaren barruan ez bazegoen ere, gau partean, Hertzainak musika taldeko Garik eskaini zuen kontzertu eder bat gozatzeko aukera izan genuen, bertako elkarte batek egindako gonbidapena jaso baikenuen.

Herri ezberdinetako haur, gazte eta helduak elkartuz, Goierriko txoko eta guneak ezagutzeko aukera ematen duen ekimen hau oso interesgarria da. ■



Legorretan Gariren kontzertua entzun ondoren.



Itsasondoko plazan mendira joateko prest.

Urkiko 2016ko agorreko Santakutz jaiak

Irailaren 10ean, iluntzeko 20:00etan hasi ziren festak, suziriak jaurtiz. Ondoren, afaria eta erromeria izan ziren, LAJA eta LUTXURDIO trikitilariak giroturik.

Irailaren 11n (igandea), hamaiketakoarekin eman zitzaion egunari hasiera. Ordurako, EPELDE eta LUTXURDIO trikitilariak bertan ziren. Eguerdian bazkaria eta arratsaldean HERRI KIROLAK izan ziren. Bertan, ARROSPIDE, ELORRIAGA aita- semeak eta "TXIKIA IV" aizkolariak eta GOENATXO III harrijasotzailea izan ziren. Aizkora deman beteranoak gailendu ziren, lehia estu baten ondoren. Harrijasotzaileak hiru ekinaldi egin zituen hiru harri desberdinekin, eta bere indarra eta sasoia erakutsi zituen.

Irailaren 14an (asteazkena), 11:00etan hasi zen Gurutze Deunaren Eguna, ermitan eman zen mezarekin. Ondoren, elkartean hamaiketako egitera joan zen jende andana, eta goiko mahaiak bete-bete egin ziren. Eguerdian partean, OSTOLAZA eta NARBAIZA trikitilariak girotu zuten plaza.

14:30ean bazkaria, eta arratsalde-iluntzerako indarrak harturik, erromeria jendetsua egin zen, egun osoan trikitia jotzen jardun zuten OSTOLAZA eta NARBAIZA trikitilariak.

Azkenik, sari banaketaren ostean, Urkiko jaien alde zozketatzen den saskiaren zenbakia atera zuten; LUIS ARANBURU egokitu zitzaion.

Datorren urteko maiatzean eta irailean berriz SANTI-KUTZ JAIK; ANIMATU!



(natura)

Mundua buruz behera

Gizakia mundu borobil batean bizi zela konturatu zenerako, kartografoek ongi finkatuta zuten mapetan goia eta behea non jarri. Eta gaur arte, mundua izarrarte erraldoian erdi galduta dabilen hauts izpi baten neurriraino txikitu zaigunean, temati jarraitzen dugu behin ikasi genuena gehiago pentsatu gabe errepikatuz. Nola diren gauzak; mapari buelta emanez gero, irudia berbera izan arren, gure mundua ezagutzea ere kostatzen da.

Ez zaigu ezkututzen, noski, kartografia eratzeko modu honek oinarri kulturala duela, nagusi izan diren erresumek ezarritakoa. Zehatzago esanda, iparraldeko gizataldeek historian zehar hegoaldekoekiko erakutsi duten (dugun) gailentasuna islatzen du.

Adibide bitxi honek zer pentsatu eman behar liguke: zenbaitetan ez ote ditugun antzeko jokaerak itsu-itsuan onartu eta jarraitu, gehiago pentsatu gabe.

Eta munduarekin ari garenez: zer kezkatu ba ote daukagu azken urte hauetan ingurumen-krisiaz entzuten ditugun berriekin? Klima-aldaketa, biodibertsitatea mundu osoan galtzea, ozeanoen kutsadura, eta abar.

Gure artean nagusi den ekonomia etengabeko hazkunde esponentzian oinarritzen da: kontsumismoak haizatuta, Barne Produktu Gordinak (PIB) gora eta gora egin beharko du datozen urteetan lanpostuak sortzea nahi badugu; baina, noraino? Planeta buruz behera jarrita ere, ahalmen mugatuak ditu, eta gaur egun ezagutzen dugun bizitza (gizakia barne) mantentzea nahi badugu, ahalmen horietara mugatu beharko gara. Eta, datuak lekuko, muga guztiak gaintzen ari gara, eta krisien alarma gorriak ugaritzen ari zaizkigu nonahi.

Baina, planetaren gainean egindako presioa ez da berdin banatzen herrialde guztietan, ezta gizarte osoaren barruan ere. Mapen goiko aldeko herrialde «garatuok» edo industrializatuok (Euskal Herria, kasu), natura-baliabideen kontsumo handiagatik eta historian zehar sortutako kutsaduragatik, zor ekologikoa dugu munduko hegoaldearekin zein etorkizuneko belaunaldiekin.

Beraz, gizakia gehiegikerien kontrako lasterketa bat hasi beharrean da, lehengaien eta energiaren erabilera murriztuz, karbono gutxiago isurtzeko modua egiteko eta herrialde aberats eta behartsuen arteko oreka-falta gutxitzen joateko. Ekoizpen eta kontsumo ereduak aldatu beharrean gaude: gehitu ordez, gutxitzea aldarrikatu beharko dugu.

Mapa berriro bueltatu eta 'behar bezala' kokatzerako zer pentsatu eman badugu, gaitz erdi. ■



Iñaki Aizpuru



(ennezeta)

Ahuntz gazta eta antxoan entsalada epela

4 lagunentzako osagaiak

- 4 lagunentzako mezclum-a: haritz hostoa, eskarola, kanonigoak eta berroak
- Alpapa hozitua
- 2 intxaur
- 4 cherry tomate
- Tomate bat
- 9 antxo xerra
- 4 ahuntz gazta xerra
- Masusta gorrien ozpin-olioa: 2 koilarakada masusta gorri mermelada, 25 ml Jerezko ozpina, 75 ml oliba olio, gatza eta piperbeltza.

Elaborazioa

Tomateak galdarraztatu, zuritu eta kubotxoetan moztuko dugu. Ondoren, xehatutako antxo xerra batekin, oliba olioarekin, gatz pixka batekin eta piperbeltzarekin konfitatuko dugu.

Tomate hau plateraren oinarrian banatuko dugu, eta entsalada mezclum-a honen gainean jarriko dugu, txukun-txukun.

Gero, intxaur txikiak eta 2 antxo xerra jarriko ditugu gainean, eta masusta gorri ozpin-olioarekin gozatuko dugu, osagai guztiak emulsionatuta lortuko duguna. Horren gainean, aurrez plantxan edo labean, ogi zati baten gainean gratinatutako ahuntz gazta jarriko dugu. Amaitzeko, alpaparekin eta cherry tomateekin apainduko dugu. ■



Juanan Jiménez
Altamira jatetxea. Ordizia
677 293 697

Euskararen atala

Euskara txukuntzen

Hona hemen gure egunerokoan euskara erabiltzean egiten ditugun hanka sartzeen zenbait adibide. Saia gaitzeen zuzentzen!

Euskara "makarronikoa"	Euskara txukuna
ZENBAT indar dauka?	ZENBATERAINOKO indarra dauka?
Bero ASKO egiten du.	Bero HANDIA egiten du.
Gose ASKO dut.	Gose HANDIA dut.

Euskaraz bai, umorea ere bai

Bi monja

Badoaz bi monja motorrean eta inork pasatzea lortzen ez duen kurba arrisksua garbi-garbi, zast, pasatu dute. Beste aldean ertzainak daude, eta esan diete:

- Zelan lortu duzue kurba hori pasatzea? Eta monjetako batek:
- Jesus gurekin dago eta.
- Beno ba, orduan isuna motorrean hiru joateagatik.

Albisteak

"Mendiak", Euskal Herriko mendien aplikazioa

Codesyntax enpresak Mendiak izeneko APPa aurkeztu du. Euskal Herriko mendizale guztiei zuzendutako aplikazioa da, doakoa eta euskaraz. Euskal Herriko 1.500 mendi ezagunen katalogoa biltzen du, eta mendizaleari bere igoera guztiak markatzeko aukera emango dio, eta bere historial osoa gordetzeko: zein mendi igo duen, noiz, zenbat aldiz. Horrekin batera, mendi bakoitzaren argazkiak eta iruzkinak gehitzeko aukera ere badago, eta informazio guztia lagunen artean partekatzeko.

Android dendan jaitsi dezakezu.

Informazio gehiago: "Mendiak", Euskal Herriko mendien aplikazioa.



Liburutegia

Nola sustatu irakurzaletasuna?

Seme-alaben irakurzaletasun falta guraso askoren kezka bilakatu da, eta, behin baino gehiagotan, nor-aezean aritzen dira irtenbideak bilatu nahian.

Hona hemen aholku batzuk:

- 1. Eredu izan:** helduok eredu gara umeentzat. Irakur dezagun eta goza dezagun irakurtzen umeen aurrean.
- 2. Entzun:** umeen galderetan ikasten jarraitzeko bidea dago. Euren zalantzen aurrean adi egon.
- 3. Partekatu:** irakurzaletasuna elkarrekin irakurriz kutsatzen da. Ipuinak irakur ditzagun, ipuinak kontatu ditzagun.
- 4. Proposatuz, ez inposatuz:** hobe iradokitzea inposatzea baino. Ez dezagun irakurtzea derrigortasun bihurtu.
- 5. Lagundu:** adin guztietan behar da familiaren laguntza. Ez ditzagun bakarrik utzi irakurtzen ikasi dutenean.
- 6. Iraunkorraz izan:** Eguneroko tarte bat gorde irakurtzeko. Irakurtzeko aproposak diren une lasaiak bilatu.
- 7. Errespetatu:** irakurleak hautatzeko eskubidea du. Bere nahaiak ezagutu eta garapena jarraitu.
- 8. Aholkua eskatu:** ikastolan, liburutegian... laguntza topa dezakezu. Bisitatu.
- 9. Animatu:** edozein egoerak irakurketara iristeko aukera eman diezaguke. Utz ditzagun liburu interesgarriak umeen eskura.
- 10. Antolatu:** antolaketa faltak irakurketa oztopa dezake. Lagundu diezaiegun euren denbora antolatzen, euren liburutegia...



2017 EGUTEGIRAKO ARGAZKI BILKETA

Argazkiak aurkezteko azken eguna abenduak 2. Gaia UDAZKEN KOLOREAK. Argibide gehiago www.itsa-sondo.eus webgunean.

Oharrak



AZAROA

- 2, 9, 16, 23 eta 30:** eskulan ikastaroa.
4: Muralaren margoketarako auzolana.
5: Gaztain jana.
6: Mendi irteera.
8, 15, 22 eta 29: TIPI TAPA 17:00 plazan.
8, 22 eta 29: SOINKETA 16:00-17:00 udaletxeko 1. solairuan.
9: Irasagar (Menbrilloa) eta mermelada ikastaroa | 18:00tan Bizi Nahi elkartearen.
14: Lurralde Antolamendua eta Hirigintza 19:00 udaletxeko 2. solairuan.
15: ERORKETA TAILERRA 16:00-17:00 udaletxeko lehen solairuan.
15: Ongizatea 19:00 udaletxeko 2. solairuan.
15: Harrera bilera. 18:00etan plazan kanpotik herrira bitiztera etorri direnei ongietorria.
16: Herri Bizitza 19:00 udaletxeko 2. solairuan.
18: Kantu afaria.
19: Makrobiotika tailerra | 9:30 Bizi Nahi elkartearen.
22: Berdintasuna lantzeko tailerra. 18:00etan udaletxeko 1. solairuan.
23: Filma | Amaren eskuak 19:00 udaletxeko 1. solairuan.
24: Bingoa 17:00 Bizi Nahi elkartearen.
25: Ipuin Kontalaria Urkipe Herri Eskolan.
25: Emakumeen aurkako tratu txarren kontrako nazioarteko eguna | elkarretaratzea plazan.
26: Antzerkia | Desentxufatuak eskolako aterpean.
29: Memoria tailerra | 18:00-19:30 Bizi Nahi elkartearen.

ABENDUA

- 1-5:** Kultur astea eskolan.
2: Argazki lehiaketarako argazkiak aurkezteko azken eguna.
3: Makrobiotika ikastaroa | 9:30 Bizi nahi elkartearen.
3: Euskararen eguna.
3: Talo Festa.
13 eta 20: SOINKETA 16:00-17:00 udaletxeko 1. solairuan
13 eta 20: TIPI TAPA 17:00 plazan.
20: Memoria tailerra | 18:00 Bizi Nahi elkartearen.
22: Bingoa 17:00 Bizi Nahi elkartearen.
24: Olentzero eta Mari Domingi.
27: Ipuin kontalaria.

URTARRILA

- 6:** HERRI EKIMENA Errifaren zoketa.
14: Manifestazioa Bilbon. Preso eta iheslariak etxera!
10, 17, 24 eta 31: SOINKETA 16:00-17:00 udaletxeko 1. solairuan.
10, 17, 24 eta 31: TIPI TAPA 17:00 plazan.
16: Lurralde Antolamendua eta Hirigintza 19:00 udaletxeko 2. solairuan.
17: Ongizatea 19:00 udaletxeko 2. solairuan.
18: Herri Bizitza 19:00 udaletxeko 2. solairuan.
21: Makrobiotika tailerra | 9:30 Bizi Nahi elkartearen.
26: Bingoa 17:00 Bizi Nahi elkartearen.
31: Memoria tailerra | 18:00 Bizi Nahi elkartearen.

Telefono interesgarriak



Udaletxea	943 881170
• Gizarte Langilea	
• Udal Arkitektoa	
• Epaitegia	

Haurreskola	943 164831
Herri Eskola	943 887704
Arbel-Aitz Elkartea	943 881339
Lurdan Janari Denda	943 885236
Arrastoa Botika	943 882148
Medikuarenean Txanda Hartzeko	943 007635
Kaxintane Taberna	606 756551
Nautiko Taberna / Izaskun Hotela	943 880012
Izaskun Ileapaindegia	943 160285

Sasieta	943 161555
Traste Zaharrak	943 161590
Taxi (Ordizia)	943 881486

itsasondo 2.0

Herriko Aldizkaria ((34. zk.)) Azaro-Urtarrila 2017

Ale honetan parte hartu dutenak honakoak dira:

Ainara Urteaga
 Amaia Salegi
 Aranzadi
 Axier Bazaga
 Bizi Nahi jubilatue elkarte
 Danel Etxeberria
 Eskolako haurrak
 Erkuden Mendizabal
 Haurreskolako hezitzaileak
 Iñaki Aizpuru
 Iratxe Ibarra (UEMA)
 Itsaso Urretagoiena
 Iturririk Guraso Elkartea
 Juan Jimenez
 Maite Lasa
 Maite Riaño
 Maddi Alberdi
 Mikel Mendizabal
 Ruth Gomez
 Unai Aldasoro

itsasondo 2.0-k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Herritik kanpo bizi baldin bazara, eta, ko-
 rreoz edo e-mailez, aldizkaria zure etxean
 jaso nahi baduzu, jarri gurekin harrema-
 netan:

943 88 11 70

itsasondo2.0@itsasondo.eus

Lege gordailua: ISSN:
 SS-297-2010 2171-5572



**GOGORAZTEN DIZUEGU
 HURRENGO ALEA
 URTARRILAN IZANGO
 DUZUTELA ETXEAN**